GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

Guggenheim Bilbao Museoak 2022ko ekainaren 13an aurkeztuko du

ARTEA IKASBIDE

Babeslea:

bbk

Artea ikasbide

- Datak: 2022ko ekainaren 14tik irailaren 18ra
- Lekua: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza Gunea
- Babeslea: BBK

- Euskal Herriko sei ikastetxetako 135 bat ikaslek, sei eta hamabi urte bitartekoek, irudimenez eta naturaltasunez betetako obrak sortu dituzte eta Museoko Hezkuntza Gunean jarri dira ikusgai.

- Gaurkotasunak inspiratu ditu aurtengo proposamen artistikoak: hizkuntzak eta komunikazioa, Ukrainako gerra, jasangarritasuna eta emakumeek historian betetzen duten zeregina dira programan eztabaidatu diren gaietako batzuk.

- Irudimena eta sormena sustatzea, esperimentatzen laguntzea eta, aldi berean, eskola-curriculumeko irakasgaiak sendotzea helburu duen hezkuntza-programa honetan 3.581 ikaslek parte hartu dute 1998az geroztik.

BBK babesle duen *Artea ikasbide* programaren edizio honetan parte hartu duten lehen hezkuntzako artistek egindako proposamen artistiko irudimentsuetako batzuk hauek dira: eskala handiko instalazio bat, errefuxiatuentzako bakeleku bat irudikatzen duena; planetak, nebulosak eta meteoritoak; buztinezko harriak etorkizuneko mundu baten irudiekin; animazio-film bat, artearen munduko emakumezko figurei buruz, eta inguratzen gaituzten formak eta lerroak irudikatzeko ikastetxe bateko jolastokian egindako arte-interbentzio baten argazkiak.

Aurten, *Artea ikasbide*k gaurkotasuneko gai sozialetan jarri du arreta, besteak beste: Ukrainako gerra, migrazioak, planetaren zaintza, unibertsoaren edertasuna eta emakumeen zeregina historian. Artistek lagunduta, ikasleek etorkizuna imajinatu dute, gerraren ondorioei buruzko hausnarketa bat egin dute, planeta zaintzeak duen garrantziaz jabetu dira, eta pertsonekin eta lekuekin konektatzeko modu desberdinak aurkitu dituzte.

Nerea Lekuonak, edizio honetan parte hartu duten sei artistetako batek, honela azaldu zuen bere esperientzia Gasteizko Miguel de Cervantes ikastetxean: “Kultura askotako talde batekin lan egitea oso esperientzia aberasgarria izan da. Ikasturteak aurrera egin ahala, gaurkotasun-albisteak izan dira ibilbidea markatu digutenak. Ukrainako gerrak mobilizatu egin gintuen, eta instalazio artistiko bat sortzea pentsatu genuen. Gainera, ikusi genuen beste herrialde batzuetan ere badaudela gatazka belikoak eta horietan haurrak direla kolektiborik kalteberenetakoak. Gerraren ondorioz beren etxeak utzi behar izan dituzten haurrentzako espazio seguru bat eraikitzea izan da instalazioaren muina. “Etxe berri” bat sortu genuen

seguru senti zitezen, ikasgelako guztiek helarazitako lasaitasun- eta adore-mezuak jasotzeko leku bat. Irakasleen inplikazioa funtsezkoa izan da esperientzia horren garapenean."

Programari azkena ematen dion erakusketak hasieratik du BBKren babesa eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren laguntza. *Artea ikasbide* erakusketa Museoaren Hezkuntza Gunean zabalduko da publikoarentzat ekainaren 14tik irailaren 18ra.

Elssie Ansareo, Ibon Garagarza, Zaloa Ipiña, Nerea Lekuona, Maider López eta Ibon Sáenz de Olazagoitia artistek, Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin lankidetzan, diseinatu eta dinamizatu dituzte edizio honetako sorkuntza-proiektuak. Gizarte Zientziak, Hizkuntza eta Matematika izan dira landu dituzten irakasgaietako batzuk eta horretarako artearen ikuspegiaz baliatu dira, ikasleen jakin-mina piztea, errealitatearen gaineko begirada berriak bultzatzea, inprobisazioa sustatzea, esplorazioa eta esperimentua helburu hartuta: ""Lana garatzerakoan honako kontu hau mahaigaineratu zitzaigun: kolore beroak, itxuraz, gerturatu egiten dira, eta hotzak, berriz, urrutiago daudela ematen du. Aurrera egin ahala planak aldatu genituen eta, hasierako proiektuarekin jarraitu beharrean, kontu horretxen inguruko egitasmoa prestatu genuen: koloreak mugitu genituen, gerturatuz eta urrunduz aritu ginen distantziak parekatzeko eta koloreekin, gorputzekin zein espazioekin esperimentatzeko ahaleginean. Gertatzen eta sortzen zen horretara moldatzen joan ginen, aurkikuntza txikietara, alegia."

Sei proiektu artistiko, irudimen handikoak eta harrigarriak

Artea ikasbide erakusketan parte hartzen duten 135 "artista" txikiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

"Munduko hizkuntzak" da Leioako Txomin Aresti ikastetxeko ikasleek aukeratu zuten lema. Zaloa Ipiña artistaren laguntzarekin, Kirmen Uribe poetaren euskarazko testu bat eta gaztelaniazko, portugesezko eta ingelesezko bere itzulpenak alderatu zituzten eta horrela identifikatu ahal izan zituzten hizkuntza bakoitzaren berezitasunak, baita munduan diren hizkuntza eta dialekto anitzak esploratu ere.

Barakaldoko San Vicente de Paúl ikastetxeko 4. mailako haurrek emakumeek historian bete duten zeregina agerian utzi zuten. Elssie Ansareok lagunduta, artearen munduko emakumezko figurei buruz ikertzen jardun zuten —kontinente guztietako margolariak, dantzariak, zinemagileak, argazkilariak eta eskultoreak— eta marrazkiaz baliatu ziren artista-liburuak edo arte-katalogoak itxuratzeko, emakume sortzaile horien lana hedatzea helburu hartuta.

Urnietako Egape ikastetxeko 4. mailako ikasleek geometria landu zuten matematikako curriculumaren barruan. Maider Lópezen laguntzarekin, material plastikoak, kartoi meheak, pinturak eta koloreak erabiltzen hasi ziren eta, ondoren, inguratzen dituzten formak eta lerroak beren gorputzekin deskriba zitzaketela konturatu ziren. Dinamika horrek aukera eman zien gorputzaz eta espazioaz gehiago jabetzeko eta ingurunearekin erlazioan beren gorputzak hobeto ulertzeko.

Gasteizko Miguel de Cervantes ikastetxeko 5. mailako ikasleen egitekoa ikasgelan errespetua eta inklusioa sustatzea izan zen, taldean dagoen aniztasun kulturaletik ikasiz. Nerea Lekuonak banako eta taldeko lan-prozesu zoragarri batean gidatu zituen; lehenik, ikasleak beren jatorrizko herrialdeko jantzi edo objektu tipiko batekin joan ziren ikasgelara, eta ondoren elkarrekin batera lan egin zuten instalazio bat sortzeko: "Bakeleku", Ukrainako gerragatik lekualdatutako familientzat aterpe izan zedin.

Gasteizko Samaniego ikastetxeko 4, 5 eta 6. mailako ikasleek mundu ideala irudikatu zuten, Ibon Sáenz de Olazagoitia artistaren eskutik. Utopiaren esanahiaren inguruan eztabaidatu zuten eta beren inguruneaz hausnartu zuten: hurbilenetik hasi (Gasteiz) eta urrunenera (planeta). Etorkizuneko mundu horri buruzko uste desberdinak esalditan jaso eta buztinezko "zoriaren gailetetan" sartu zituzten. Horrez gain, ikasleek garraiobide utopikoak, etorkizuneko banderak eta txanponak marraztu zituzten.

Turtziozko Eskolako 1. eta 6. maila bitarteko ikasleek unibertsoari eta historiari buruzko hausnarketa bat egin zuten. Adin desberdinetako haurren talde-lan bat izan zen eta horrek aukera eman zien gaitasunak, ezagutzak eta interes desberdinak bat egiteko. Taldea Hubble teleskopiotik jasotako irudien edertasunean inspiratu zen unibertsoaren irudiak asmatzeko: Espresionismoak berezko dituen teknikak erabiliz, nebulosak, planetak, izarrak eta meteoritoak irudikatu zituzten.

Bilbo-New York elkartrukea

Leioako Txomin Aresti ikastetxeko ikasgela bat eta New Yorkeko 28. Ikastetxe Publikoko beste bat, Zaloa Ipiña eta Sharela Bonfield artistek lagunduta, sei astez aritu dira posta elektronikoz komunikatzen eta beren proiektu artistikoen informazioa trukatzen, testu-mezuen eta egiten ari ziren sorkuntza-lanen irudi, marrazki eta argazkien bidez. Bi taldeak gaztelaniaz eta ingelesez komunikatu ziren eta modu horretan sustatu zen hizkuntza eta kultura desberdinen ezagutza.

1999az geroztik *Artea ikasbide* programak arte-hezkuntzaren bidez Lehen Hezkuntzako Euskal Herriko eta New Yorkeko ikastetxeen artean kultur trukean aritzeko aukera eman die bertan parte hartu duten ikasle, artista eta irakasleei.

***Artea ikasbidek* 25 urte**

Artea ikasbide programak 25 urte betetzen ditu aurten, eta poz handiz gainera, arte-jardueren bidez Lehen Hezkuntzako 3.500 ikasle baino gehiagoren eskola-curriculuma sendotzen lagundu izanagatik eta, aldi berean, haur horiei mundua modu sortzaile eta pertsonal batean begiratzen irakatsi izanagatik, hainbat balio, besteak beste, talde-lana, beste kultura batzuekin elkar bizitzea eta ingurumenarekiko errespetua bereganatu dituzten bitartean.

1998az geroztik, programa honen garapenea 3581 ikasle, 32 artista, hiru hizkuntza-eredutako Lehen Hezkuntzako 263 irakasle eta Euskal Herri osoko 172 ikastetxe lankidetza estuan aritu dira Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin.

Guggenheim Bilbao Museoan martxan jarri zenetik 25 urte igaro direnean, *Artea ikasbide* programak artearen bidez eskola-curriculuma hobetzeko duen ahalmen izugarria erakusten jarraitzen du. Hezkuntza-

programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumen sortu zen. 1970ean ezarri zuen bertan Natalie K. Lieberman mezenasak, hiriko lehen hezkuntzako eskola publikoetan artearen irakaskuntza kendu izanari erantzuteko.

Azaleko irudia:

Turtziozko Eskola ikastetxeko ikasleek egindako lana

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.eus (Prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:

Artea Ikasbide

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Ikastetxea: Txomin Aresti, Leioa
Irakaslea: Patricia Márquez
Artista: Zaloa Ipiña

Ikastetxea: San Vicente de Paúl, Barakaldo
Irakasleak: Begoña Arceo y Aritz Gómez
Artista: Elssie Ansareo

Ikastetxea: Egape, Urnieta
Irakaslea: Nerea Arruti
Artista: Maider López

Ikastetxea: Miguel de Cervantes, Vitoria-Gasteiz
Irakaslea: Josune Mendia
Artista: Nerea Lekuona

Ikastetxea: Samaniego, Vitoria-Gasteiz
Irakasleak: Miren Jasone García, Maria José Egiluz e Itsasne Larruskain
Artista: Ibon Sáenz de Olazagoitia

Ikastetxea: Turtziozko Eskola, Trucios-Turtzioz
Irakasleak: Elena Edesa, Gaizka Errasti, Iñaki Tera, Roberto Canales, Aida Falces y Unai Toral
Artista: Ibon Garagarza